



## 4-5 JAIAK Zabaletako jaien 25. urteurrena ospatzen ari dira

Duela 25 urte, Lasarte-Oria herriak urte bete zuen eta herriko hainbat auzo eraiki berriak ziren. Horietaiko bat zen Zabaleta auzoa. Honetan haurrak zituen jende gazte ugari zegoen eta auzoa alaitzeko asmoz, auzotar talde batek ekainaren lehen asteburuan jaiak antolatzea erabaki zuen. Asteartean hasi eta igandean bukatuko dira. Bertako bizilagunekin 25 urte hauetako ibilbideaz hitz egin dugu.



## 6 ARETO-FUTBOLA Buruntzaldeko txapelketa gaur eta bihar kiroldegian

Bigarren urtez Buruntzaldeko udalek kirol arloan elkarlanean, Buruntzaldeko areto-futbol txapelketa antolatu dute. Iaz Andoinen ospatu bazen ere, aurtien partidak Lasarte-Oriako kiroldegian jokatu dira gaur eta bihar artean. Gaur 20:00etan lehenengo final erdian izango dira Usurbilgo Makax eta herriko Buenetxea taldeak lehiatzen.

# Formakuntzaren garrantzia



Asko izan ziren Ikaslan jardunaldietara gerturatutako profesionalak. Guztiek langileentzat egun dagoen formakuntza eskaintza zabalago ezagutzeko aukera izan zuten.

**E**nplegurako formazioa sustatzea eta hedatzea helburu izan zuten Ikaslan jardunaldiek eta egun langileentzako dagoen formakuntza eskaintza zabalaren inguruan aritu ziren asteazkenean kultur etxean enpresetako kudeatzaile, gizarte baliabideen arduradunak eta prestakuntza teknikariak.

Lasarte-Oriako gizarte Zerbitzuak burua Gorka Lizarraga bertan izan zen departamentuko beste teknikari batzuekin batera.

### Ikaslan

Ikaslan jardunaldi hauek Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Hernaniko BHI-k antolatu zituzten Manuel Lekuonak eta bertan hizlari izan ziren Gloria Gonzalez Eusko Jaur-

laritzako enplegu teknikaria, Martin Adin Gipuzkoako Hobetuz-eko zuzendaria, Jose Mari Muñoz Zubigune fundazioko kudeatzailea eta Jesus Ezkerro Tknikako Zerbitzuko arduraduna.

### Langile formatuenak

Egun profesionalak esparru ezberdinetan gaitzeko garrantziaz hitz egin zuten eta hau lortzeko erakundeek bideratzen dituzten heziketa sistema ezberdinak aztertzen zituzten bertan bildutako profesionalak. Formakuntza honi esker langileek euren jarduna akreditatzen dute Europa mailan balioa duten ziurtagiri ofizialen bitartez.

Gloria Gonzalezek langileen etengabeko prestakuntza eta formakuntza azpimarratu

nahi izan zituen egungo "lan mundu aldakor honetara" egokitzeko tresna baliotsu bezala. Horretaz gain, enpresentzat oso onuragarria da langileen formakuntza, "ahalik eta langile formatuenak edukitzeak merkatuan abantaila ematen dio enpresa bati bere lehiakideen artean". Gainera, enpresari kalitatearen balioa erantzen dio ezaugarri honek duen garrantziarekin.

### Eredu aldaketa

Ziurtagiri profisionalekin orain arteko formakuntza eredu aldatu dute erakundeek eta egun langabezia eta lanean dauden pertsonak hauek burutzea bideratzen ditu Lanbidek. Horrela urteetan titulurik gabe burututako lana ikastaro batzuk gaindituz

formalki akreditatzea lortzen dute langile hauek gerora lan bilaketan lagungarri izan daitezten.

Honela, langileek eta enpresek hezikuntza arloan dituzten eskaintzak aztertzen zituzten jardunaldian ekimen zehatzak aipatuz.

Eusko Jaurlaritzaren In-formatzen, ikaskuntzako bitartekariak zerbitzuaren inguruan aritu ziren besteak beste. Langileei aholkularitza personalizatua eskaintzen die eta honen bitartez eskualdean gauzatzen diren berriak eta prestakuntza eskaintza jakin dezakete. Honen baitan jasotzen da prestakuntza arautua, ez arautua eta informala. [www.in-formatzen.com](http://www.in-formatzen.com), Facebook edota Twitter kontuetan jaso daiteke informazio guztia.



IEFPS USURBIL GLHBI



**AURREMATRIKULA maiatzaren 28tik ekainaren 8ra**

Goi-mailako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Energia eta ura

Mantentmentua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: [eskola@lhusurbil.com](mailto:eskola@lhusurbil.com)

Neure kabuz



Unai Muña

Datorrena datorrela!

Behin irakurri nuen konponezi-  
nak diruditen arazoz mozorrotuta  
iristen direla aukera onenak; haz-  
teko, garatzeko, aldatzeko... eta  
Doctor Deseo-ko abeslariari  
entzun nion, inork ezin dituela  
bere arazoak aukeratu, baina  
berauekin zer egin erabaki bai.  
Beraz, gakoa ez da hainbeste zer  
gertatzen zaigun, nola erantzuten  
dugun baizik.

Bizi izan dugun ongi-izate  
maila denbora luze batean ez da  
errepikatuko, eta bulego ezkutue-  
tan antolatuta dirudien krisi honek  
garaï gogorak aurreikusten ditu,  
baina nor dio ez dela mesede  
izango?

Beldurra da kontrol eta mani-  
pulaziorako bitartekorik eraginko-  
rrena, eta ondo dakite hori  
kutsadura mediatiko hau zabal-  
tzen ari direnek. Izututa nahi gai-  
tuzte, zertarako baina? Erabil  
errazagoak izan gaitezten, agian?  
Horrenbeste izerdi eta odol tanta  
isuri ondoren lortutako eskubi-  
deak baliogabetu asmotan, akaso?

Dena dela, izan behar dena  
izango da, eta dena dela, aukera  
on bat izan daiteke. Bizimodu  
konpetitibo eta kapitalista basati  
honek eraman gaitu antsietatera,  
depresiora, minbizira... Gure  
balore sistema birplanteatzeko eta  
norabidea aldatzeko baliatu bage-  
nezake, ez da mesede makala  
izango.

Hortzak erakusteko garaiak  
dira. Zoritarrez, beldurrean eta  
immobilismoan erori garelako diru-  
di, ordea, eta noraezean goaz  
korrontearekin batera. Zaila da  
baikorra izaten, edo ez da hain  
zaila? Negar egitekoa bada ere,  
txiste bat gogoratu dut: Ezkorrek  
baikorriari - Dagoeneko egoerak  
ezin dik beltzagoa izan! Eta bai-  
korrek erantzun - bai motel! Izan  
zitekek, noski baietz!

Zorion agurrak



Clara

Zorionak etxeko txispi-  
tari bere 4. Urtebe-  
tzean! Ane, Eneko, izeba  
eta osabaren partetik.



Enaut

Zorionak! Bederatzi  
muxu eta egun ona izan  
Oier, aiton-amona eta  
famiariaren partetik.



Saioa

Zorionak! Bederatzi urte  
ez dira egunero bete-  
tzen! Muxu pottolo bat  
familia guztiaren partetik.



Oinatz

Iritsi da eguna pottoki!!  
Ondo pasa zure egu-  
nean! Bost muxu poto-  
lo familiaren partetik!



Ane

Zorionak moñona eta  
6 muxu potolo maite  
zaituztegun guztien  
partetik.



Nahia

Zorionak, Nora eta  
gurasoen partetik.  
Bederatzi muxu.



Jose eta Javi

Zorionak bikote zuen lagun "xelebrean" parte-  
tik!



Ane

Zorionak etxeko neska  
ederrari bere 8. urte-  
betetzean. Gurasoak,  
Xabier eta Josu.



Mª Carmen eta Miguel

ZORIONAK zuen urrezko berrogeita hamar  
urteko ibilbideagatik. Ederki pasa genuen larun-  
bateko ospakizunean!



Alain

Ongi etorri pottoko!  
Aitana eta gurasoei  
hamaika muxu potolo!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo  
www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pabilioi industrialak saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu. Harremanetarako, 658 910 569.
- Pisu alokatzen da. 4 gela, sukaldia, sala, bainu-gela eta komunarekin. Bankuaren abala behar da. Harremanetarako telefonoa, 943 372 066.
- 85m2ko etxea alokatzen da zentroan. 3 logela, 2 komuna, sukaldia eta egongela. Interesatuak deitu 647 024 074 zenbakira eta Anagatik galdetu.

Lan-eskariak

- Proficiency titulodun ingeniari-tza ikasle batek ingeles eta matematika klase partikula-

- rrak emango lituzke udan. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko, 676 145 135.
- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixoak edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.
- Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrian trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuak 679 526 305 telefono zenbakira dei dezatela.
- Magisteritza ikasten ari den neska eskuldun bat, haurrak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest dago. 649 207 669
- Emakumea eskaintzen da adindua zaindu,

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Unai Tejero Molchaniuk, maiatzaren 23an.
- Alain Molano Mecerreyes, maiatzaren 21an.
- Unax Oliva Goenaga, maiatzaren 19an.
- Ashley Garcia Moreno, maiatzaren 18an.

Heriotza

- Francisco Bringas Reve, maiatzaren 29an, 83 urte zituela.
- Asensio Illarramendi Garmendia, maiatzaren 24an, 80 urte zituela.

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Erzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 1</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Larunbata, 2</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Igandea, 3</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Astelehena, 4</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Asteartea, 5</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteazkena, 6</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Osteguna, 7</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chula, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako  
Udala  
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## KUKUKA



Kukuka antzerki eta dantza eskolako ordezkariak hamabostaldiaren balorazio ona egin zuten.

## Hamabostaldiarekin pozik

Kukukako kideak oso pozik azaldu dira hamabostaldiak eta larunbateko urteurren jaialdiak izandako parte hartzearekin

**Kukuka antzerki eta dantza eskolak bere hamabostaldiaren eta jaialdiaren balorazio positiboa egin du. Bereziki Manuel Lekuonara dantza eta antzerki ikuskizunetara gerturatu den ikusle kopuru handia azpimarratu nahi izan dute, hamabost egun hauetan 4.000 inguru. Bestalde, larunbateko jaialdia arrakastatsua izan zela azaldu dute.**

**H**amabostaldiaren balorazio positiboa egin zuten Kukukak. Dantza eta antzerki eskolak euren lana erakusteko aukera izan zuten hamabost egunetan eta orokorrean dena ondo aterata zela azpimarratu nahi izan zuten.

Parte hartzea oso handia izan da eta ia 4.000 ikusle izan dira Manuel Lekuonatik pasa direnak. Horretaz gain, lehen urtea izan da goizeko ikuskizunak eskoletan egin direla eta "nahiz eta pozgarria eta polita izan antzerkia eta dantza beste esparru batzuetara eramatearena", Enara

leregik "oztopo teknikoak" izan direla azaldu zuten eta datorren urterako udalarekin landu beharreko gaia izango dela aipatu zuten.

Larunbateko jaialdiari dagokionez, desfilean Trikihotzen musika zuzenean izatea eskertu zuten, izan ere, "marea berdea" inoiz baino politagoa izan zen eta oso alai eta dibertigarria "herriko jendeak disfrutatzen ikusi gintuen". Bazkari herrikoian parte hartzeko txartelak azkar saldu ziren eta orokorrean herritarrek aktiboki parte hartu zuten eskolaren urteurren festa handian eta hori ere

eskertu nahi izan zuten. Uxue Loinazek azaldu moduan, "herritar askok parte hartu zuten gure jaialdian eta laguntza eman zigun. Kontzertuetan jende asko bildu zen".

"Kultur adierazpen asko dago azken boladan Lasarte-Orian eta gu ere horren parte izateak poza ematen digu, koloretako herri alai baten alde ari garelako" azpimarratu zuten Joxe Mari Agirretxek.

### Ekintza berezi gehiago

X. urteurrenagatik ekintza desberdinak antolatu ditu Kukukak eta Kontxu lartzaren hitzetan oso harrera ona izan dute. Hurrengo hitzordua bihar Oreaka TX-rekin egingo den ikuskizuna izango da, sarrerak salgai daude eta herritarrak hau ikustera animatu zituen. Ekainaren 5ean, Dorleta Urretabizkaia aktorearekin egingo da beste saio berezi bat.

## BILERA

### Nagusien bazkariari ikuspegi berria

Urriko lehen astean ospatu ohi den nagusien omenaldiari ikuspegi berri bat eman nahi dio Udalak. Asmoa omenaldiaren jatorrizko izaera berreskuratzea da eta udalerriko elkarte gastronomiko, eta kultura zein kirol taldeen parte-hartzea sustatzea.

Nagusientzat Michelingo frontoian ospatzen den bazkaria ekitaldi garrantzitsua dela egiaztatzen da. Azken urteetan catering enpresa bat arduratu da bazkaria prestatzeaz eta udalak uste du jarduera horrek gastu handiegia suposatzen duela. Herriko elkarte eta taldeei honetan parte har dezatela proposatu nahi zaie jarduera zehatzak eginez.

Proiektu honen nondik norakoak azaltzeko bilera antolatuta da herritarren ekarpenak jasotzeko ekainaren 5ean 18:30etan Villa Mirentxun.

## ASTE BERDEA

### Bidali ekimen berdeak

Herritarren parte hartzea oinarri duen ekimen berdeen bilduma osatuko da Aste Berdearen baitan. Herritarrek euren eguneroko bizitzan ingurumena zaintzeko egiten dituztenak jasotzea du helburu ekimenak. Autokonpostajea etxean egiten dutenak, haurrentzako pardel ekologikoak erabiltzen dituztenak, ur gutxiago kontsumitzea gauza ezberdinak komunean edota sukaldeko iturrietan erabiltzen dituztenak...

Hauek artelatz@artelatz.com helbidera edota 943 670 249 telefonora deituta jasoko dira asteazkenean arte, ekainaren 6a. Asteazkenean bertan azokan jarriko den postuan utzi ahal izango dira ere esperientziak eta opari esne pota bat jasoko dute. Ondoren hauek guztiak liburuxka batean bilduko dira.

Bestalde, eraginkortasunez gidatzeko ikastaroan izena emateko azken eguna da gaurkoa. Aipatutako mail edo zenbakian egin behar da.

## HAURRESKOLA

### Guraso elkarte sortzeko batzarra

Lasarte-Oriako Haurreskola Partzuergoan sartuko da datorren 2012-2013 ikasturtean. Honek aldaketa ugari ekarriko dizkie bai haurrei eta baita gurasoei ere. Haurreskolaren egitura berriaren barruan, gurasoek badute parte-hartzeko eskubidea.

Parte-hartze hori gauzatzeko Partzuergoa eta Udalaren aurrean guraso guztien ordezkari izango den Guraso Elkarte bat sortzea komeni da. Guraso Elkarte hori sortzeko, gurasoak elkartu eta tramite ofizial batzuk egin behar dira. Prozesu hau martxan jartzeko asmoarekin bilera egingo da ekainaren 5ean, astearte, 19:00etan Manuel Lekuona kultur etxean.

Norbaitek ezin badu gerturatu eta interesatua balego informazioa eskuratu edo prozesuan parte hartzeko jarri harremanetan lurre Telleriarekin 696 080 037 telefonoan edota igejokinaena@gmail.com helbidean.

## Bitartekaritza zerbitzua hizpide

**N**ola konpontzen ditugue gure familiako gatazkak? izan zen asteazkenean Villa Mirentxun burutu zen hitzaldiaren gaia.

Honekin Jaurlaritzak eskaintzen duen bitartekaritza zerbitzuaren lana ezagutzera eman nahi zen Lasarte-Orian. Bitartekaritza zerbitzua ezzaguna izan daiteke askorentzat eta euren eguneroko lana zertan datzan azaldu zuten bi langilek.

"Bitartekaritza zerbitzua askotan banandu nahi edo banatuta dauden bikoteen artean gatazkak konpontzeko balio duen zerbitzu bezala ulertzen da baina hori baino gehiago eskaintzen da". Orokorrean familia arteko gatazketan akordioak lortzea da azken helburua eta horretara iristeko profesional ezberdi-



nekin egiten dira beharrezkoak diren saio guztiak.

Jardunaldi hauekin ezagutzera eman nahi da bestelako familia gatazkak ere lantzeko gunea eskaintzen dela. Gatazkak konpontzeko gune neutro bat eskaintzen da, doakoa eta alor ezberdinetan espe-

rientzia duten profesionalen laguntzarekin. Behin akordio-etara iritsita, saioak eteten dira baina jarraipena egiten zaie. Izan ere, gerora komenigarria izaten da akordio horiek berritzea familia, bikoteen egoera aldatzen delako urteekin.

## TEKNOLOGIA BERRIAK

### Txintxarri zure smartphonean!

Azken hilabeteotan lan handia ari gara egiten Txintxarri egunean jartzeko. Web berriarekin batera, diseinu berria, sare sozialetan kontuak... ahalik eta gehien zabaldu nahi dugu gure herriko informazioa eta herritarrak dauden plataforma teknologiko guztietan gure txokotxo eraiki nahi dugu.

Gaurkoan mugikorren azpiko aplikazioa nahi dizuegu aurkeztu. Android zein iPhone teknologietarako egin dugu m.txintxarri.info. Honi esker mugikorretik modu erosoagoan irakurri ahal izango dituzue gure albisteak, irudi galeriak ikusi eta agenda kontsultatu. Animatu eta sartu!



# Baserri giroko jaiak, Zabaletako jaiak

## ► Zabaletako auzoko jaiak 25 urte betetzen dituzte ► Hainbat izan dira urte hauetan antolatutako ekintzak, baina guztien artean garrantzitsuena proba mista da



Arpaña zer-beltzean badago ere, 1950ko proba mista indiala dugu, Ordian.Zabaletako auzoan zegoen zelaiari antolatzen zen proba.

**Garai batean, Pilarito Amabirgina egunean Oztaran auzoan edo Oriako auzoetan uztailean Karmengo Amaren egiak inguruan jai handiak egiten ziren eta herritarrek ederki gogoratzen zuten hauetan. Baina auzoetako jai horiek pixkanaka desagertu dira, ez, ordea, Zabaletako auzokoak. Aurtten 25 urte dira jai hauek ospatzen hasi zirenetik eta hauek mantentzeko asmoa agertu dute Zabaletako auzoko lagunek.**

### Nerean BEZARRERE

Duela 25 urte, Lasare-Oria herriak urte batez zuten eta herriko hainbat auzo eraldi herriak ziren. Honekiko bat Zabaletako jaiak ziren. Honekin haurrak zituen jende gazte ugari zegoen eta auzo alaitzeko asmoz, auzotar talde batek ekainaren lehen asteburuan jaiak antolatu zela erabaki zuen.

"Garai hartan ez zegoen festarik data hauetan eta udako lehenengo festak izango ziren", azaldu digute auzoko lagunek. Jai hauek denboran trau eta aurtten jaiarrezko etxe atsikitu horiek dauden lekuan, berriz, zelaia zegoen. Bertan zegoen plaza antzeko bat egiten genuen borboli bat eta horriko egileko zirkuitua eta adarian egiten ziren beste "inguruko baserrietatik ere zerbitu ematea zuten herriak".

### Erromeria xumea

Honekin batera, baserriarrek auzora gauetan hurbiltzeko erromeria "sume bar" antolatzen zuten. "Sume bar" antolatzen zutela azaldu digute, "hemen dirunik ez zegoen eta inguruko jendearekin, ezkondu zuten eta hala espakizumea jaten zuten herriko bazuekin egiten zuten. Biga Baserriarrek hurbiltzeko lehaketa bat egitea pentsatu zuten. "Baserrien artean behar gehiago zebait izan behar zuten. Gutxi ikusten ziren

proba mista Herri kirolean barnean gainera, proba berezi bat antolatu zuten. Proba mista, proba mista. Baserriarrek hurbiltzeko lehaketa bat egitea pentsatu zuten. "Baserrien artean behar gehiago zebait izan behar zuten. Gutxi ikusten ziren



Erromeriaren jaiak, baina ez, baina, hainbat izan dira, erromeria izan diren baldak.



Arpaña zer-beltzean badago ere, 1950ko proba mista indiala dugu, Ordian.Zabaletako auzoan zegoen zelaiari antolatzen zen proba.

egon dela harro esaten dute. Zabaletako jaietan ere auzoko haurrek garrantzia izan dute beti.

### Haurrentzako ekintzak

Zabaletako jaietan ere auzoko haurrek garrantzia izan dute beti. "Beti daniak astean zehar umeen festak izan dira. Horrek ekartzen duen giroa, gurasoak aitona-amonak garrantzitsua da," aipatu digute.

### Bertsolari hasi herriak

Baina erromeria baino lehen, bazkal ostean, bertsolarren txanda zen. "Hemen ingurukoak ziren Anton Gain, lagunena bat eta gero gazte pare bat ekartzen zuten".

### Hainbat urte hauetan

"umek erakitzeko oso aproposa den antzerkia eta zerbitu simplea."



Karta jokoa ere egin dira. Bita Zabaletako jaietan.

"Beti daniak astean zehar umeen festak izan dira. Horrek ekartzen duen giroa, gurasoak, aitona-amonak... garrantzitsua da"

### Teresa sorgina

Era berean, egun Zabaletako jaietako ikur dien teresa sorginaren buruz ere mintzo dira. "Duela sei edo zazpi bat urte dira teresa sorgina ditorela," argitu digute.

Alejandro Romok sortutako sorgina dela azaldu digute eta honek ere, lehenengo urteetatik erabiltzen diren buru handiak egiten zirela azpimarratu dute. "Persona oso sartuta da, bel dago prest edozerarako. Horregatik omenaldia egin genion".

### Jai bazterdea

Batzuk dira urte hauetan bazterdean lan egin duten auzotarrak. Hasieran, berriz, "jende gutxi zegoen jai bazterdean. Baina ilusio asko zegoen. Haurrak zituzten laguntza eta aurkidie gehienena izan genuen," aipatu dute Zabaletako jai bazterdeko kirolak.



Ederki hasi zituzten jaiak auzoko gazteek, kanseatak margozten.



Kulakoa estobako txikiak antzerketo dituzten dolanarik enlakuak zituzten.



Zabaletako auzoko lagunek izan ziren antzerki eskolako lehen puzoak leuzi zituztenak.

Baina berezi nahi dituzten hiru pertsona daude: Imanol Uribe, Antonio Blas eta Jose Migel Aranzadi. "Joan zaizkigun hiru pertsona dira. Hirurak oso pertsona garrantzitsuak auzoko gazteak, lehenengo bi urteetan, kristoren lana egin zuten. Oso gazte hil zen. Antonio Blasek ere, asko lagundu zizun eta bere oroinenez tuko dela ueste dugu," adierazi dute.

Hala ere, zerbitu argi daukate. "25 urtez gai izan garen hau mantentzeko. Beti egin dira jendakaren artean irabierik in eta istilurak baina dena konpontzen da".



Kulakoa estobako txikiak antzerketo dituzten dolanarik enlakuak zituzten.



Berrosolari ezagunak ere izan dira Zabaletan, hala nola, Maileen Lujanbe edo Jon Milla.

nistak hiru egun hauetan. Haurk kamisetak margotuak jolas ugari, Kukulako gazteboen antzerkia ikusi, hainbat opari jaso eta japoniar bombonak gozatu ahal izan dute.

Gaur aratsaldean, Teresa sorginari ongi etorria emango zaio auzoko trikitilarien laguntzaz. Baina aurrerik Kukulako antzerkia eta Porrax eta Diribi banda batukadak eritimoa jarriko dute.

Dantzak ere izango dute bere lekua, inguruko herri-koia, Kukulako dantza garriketo lagunena saioa eta ondoren erromeria izango dira. Eta Alvororen bila filmaren emanaldi berezia.

Bihar, Jose Migel Aranzadi oroinenez eskolara eta mus ikasketara eta toka txapelketa ere izango dira.

Aratsaldean, haurrentzako ur jolasek eta herri kirolak, berriz, soto berezia eta Gazte Rock gaua.

Igandean, jendea animatzea espero dute Zabaletako lagunek. "Kukulako euskal dantzek proba mistaroko presantzen dute jendea. Baserriar giro horrek eta taldeen arteko piteak lasarteratuak Zabaletara hurbiltzea dakarrela ueste dugu".

herrikirolean Baskari ostean, EGAN aldeak jarriko ditu guztiak dantzan. Eta gau aldean, Teresa sorgina traka handiarekin agurtuko dute.

**UDAL**  
EUSKALTEGIAN  
Apuntatu  
Anima hartu

**2012ko uda-ikastaroa UDAL EUSKALTEGIAN**

Azterlekeak prestatzeko ikastaroa.  
Astelenerdik ostiralera.  
3 orduko ikastaroa (9:30 - 12:30)  
Prezioa: 90 €  
Diru-laguntzak, badiude.  
Datuak: 943 36 16 21  
Titulu horietan, esateko, Harkaitz (EGA)  
"HABERENAK" Oso garbi zuzeneko Harkaitz, egiten  
Erantzarako eta Administrazioako balio duenak.  
Ikastaroaren iraupena: Uztailaren 2tik 27ra.  
Matrikulalidia: Ekainaren Tetik 15era

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia  
Bekakale bidea 1  
Tel.: 943 36 16 21  
20160 Lasarte-Oria (943 36 16 21)  
www.lasarte-oria.org/udal/25/1147\_sitri

**MORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak - beira bikoitza  
• segurtasun beirak - dutxa-ixturak eta irristailuak  
• ispluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 33- 610 45 93 45

## LABURRAK.-

## Igerilekua itxia larunbatean

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, ekainaren 2an igerilekua itxia egongo dela, Gipuzkoako Udako V. Sariketaren-gatik. Itxidialdia egun osokoa izango da, goiz eta arratsaldean.

Era berean, ekainaren 9an, Lasarte-Oria Saria dela eta, igerilekua goizez itxia egongo dela ere aurreratu dute.



## Futbol Porrako sariak banatu ziren

Ostadar SKT-k 2011-2012 denboraldiko futbol porrako bigarren itzuliko sariak eta 1000 eurotako saria ere banatu zituen lehenengo ostiralean Txema tabernan.

"Jon y Andrez" boletoa lehenengo saria eta bigarren postua, berriz, "Pili Cien"-ek lortu dute. Gainera, "Pablo Grifos"-ek denboraldi oso sari nagusia eskuratu zuen.

Sari hauetaz gain, urdaiazpikoak ere banatu ziren sari bana-keta honetan. Hauek "Iraiti eta Ane", "Los Makus otra vez los Makus", "Iñaki Kas" eta "Iraitz Mitxelena" txartelentzat izan ziren.

Gainera, Txema tabernak ere saria izan zuen, itzuli honetan puntu gehien lortu dituen taberna izateagatik, bi pertsonentzako afaria Goeigi jabetxean.

## Ostadarreko futbol taldeen deialdia

Ostadar SKT-ko futbol taldeak hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira. Horregatik, herriko gazteei deialdia egiten die hurrengo egunetan maila ezberdinetako taldeen proba egitera.

Astelehen eta asteazkenean, 18:00etan alebin mutilak (2001) eta infantil neskek entrenamendua izango dute; 19:30ean kadete mutil eta neska (1998 eta 1997). Asteartean eta osteguna, berriz, 18:00etan infantil mutilak izango dira eta 19:30ean, jubenilak (1994,1995 eta 1996).

## KIROL AGENDA.-

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 1

## BURUNTZALDEKO TXAPELKETA

Kiroldegian, finalerdia

20:00etan, Usurbil-Lasarte-Oria

21:00etan, Andoain-Urnieta

Larunbata 2

## MOSSO OROIMENEZKOA

Michelingo kirol gunean

15:00etan, ISU Leihok-Izarrar

15:50etan, Ilargi-Viña del Mar

16:40etan, El Punto-Izkiña

17:30etan, Tiburones Rojos-Txindoki

## BURUNTZALDEKO TXAPELKETA

Kiroldegia

18:00etan, Finala

Igandea 3

## MOSSO OROIMENEZKOA

Michelingo kirol gunean

09:30etan, Balerdi-Illun

10:20etan, Bar de Mau-Oria kristaldegia

11:15etan, Ayete-Trumoa

## ESKU-PILOTA

Larunbata 2

Atano III. pilotalekua, 16:30etan

Donostia-Lasarte

Herriarteko txapelketa

Senior, jubenil eta kadete partidak

Altoz, 18:00etan

Intxurre 5-Intza

Udaberriko txapelketa, eskuz binakoa, infantilak

## PALA

Asteartea 5

## SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30etan, Xabi eta Mikel-Pagola eta Jesus

19:15etan, Alain eta Txema-Xabi eta Beñat

20:00etan, Santi eta Bernaitz-Xenki eta Mundu

Asteazkena 6

## SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30etan, Iñigo eta Carline-Galdos eta Izeta

19:15etan, Goiko eta Azkona-Begiristain anaia

20:00etan, Jonpe eta Iker-Iñaki eta Joserra

## SQUASHA

Ostirala 1

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Joaquin Peña-Iñaki Garcia Muñoz

Kinin Calvo-Oswal Cañedo

Astelehena 4

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Iñaki Garcia Muñoz-Xabier Amiano

Iker Cañedo-Kinin Calvo

## ARETO-FUTBOLA.-

## Buruntzaldeko txapelketa kiroldegian

Gaur arratsaldean finaerdiak eta bihar finala jokatuko dira

**Bigarren urtez Buruntzaldeko udalek kirol arloan elkarlanean, areto-futboleko txapelketa antolatu dute berriro ere. Iaz Andoainen ospatu bazen ere, aurtun partidak Lasarte-Oria jokatuko dira.**

## Nerea EIZAGIRRE

Maiatzaren 25ean, aurkeztu zuten Andoaingo Ainara Rodriguez kirol zinegotzia eta Lasarte-Oriako Alaitz Mendizabal kirol saileko batzorde buru ordeak Buruntzaldeko II. Areto-Futboleko txapelketa.

Aurtengo lehiaketa, iaz Andoainen jokatu zen, Lasarte-Oriako kiroldegian jokatuko da gaur, ekainaren 1a eta bihar, ekainaren 2a bitartean.

Honetan, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo txapelketetako talde txapelidunak edo, hori ezean, herriaren izenean doazen taldeak lehiatuko dira Buruntzaldeko bigarren txapela eskuratzeko.

Honela, gaur ostirala, arratsaldeko 20:00etan jokatuko



Izkiña taberna, Lasarte-Oriako ordezkaria izan zen iazko txapelketan irabazlea.

da lehenengo final erdia, Usurbilgo Makax eta Lasarte-Oriako Buenetxea taldeen artean; jarraian, 21:00etan, Andoaingo eta Urnieta taldeek jokatuko dute bigarren-go.

Partiden irabazleek bihar, arratsaldeko 18:30etan jokatuko dute txapelketako finala.

## Txapelketa mantendu

Prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, aurtengo txapelketa honen bigarren edizioa da.

Iaz Lasarte-Oriako ordezkariak, Izkiña tabernak irabazi

zuen lehiaketa; aurtengoan Buenetxearen esku egongo da.

Jarduera honekin herri mailako txapelketetan parte hartzen duten talde hobereenak saritu nahi direla azpimarratu zuten, "urte osoan jokatutako lehiaketan irabazle suertatu ondoren, aldameneko herrietako talde hobereenkin lehiatzeko aukera eskainiz".

Gainera, Buruntzaldea osatzen duten herrien asmoa Areto-Futboleko lehiaketari jarraipena ematea dela aurreratu zuten "urtero herri ezberdin batean jokatuz".

Asteartea 5

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera

Txapelketa fasea

Oswal Cañedo-Joaquin Peña

## GIMNASTIKA

Larunbata 2

Landako Kiroldegia, Durango 10:00etan

LOKEko Garazi Gomez, Aizpea

Arroyo, Ariadne Aguado eta kadete

taldea Euskal Ligako txapelketan

izango dira.

## ATLETISMOA

Igandea 3

Mutriku, 10:00etan

Herriko hainbat korrikalarik Arnoko

VIII. mendi lasterketan izango da

Kirol guneko atletismo pistan, 10:30etan

Landaberri eta Sasoea-Zumaburu

ikastetxeetako alebin eta infantilak

proba konbinatueta Gupuzkoako

txapelketan izango dira.

## IGERIKETA

Larunbata 2

Kiroldegian, 10:00etan eta 17:00etan

Buruntzaldea IKT-ko igerilariek

Gipuzkoako Udako V. Partearteko

Sariketan izango dira.

Igandea 3

Kontxako hondartza, 12:00etan

Buruntzaldea IKT-ko Juan Vicente

Martin igerilari masterrak Hiru

Hondartzeko Itsasaldian parte

hartuko du.

## TRIATLOIA

Larunbata 2

Ondarroa, 15:30etan

Herritar talde batek Euskadiko

triatloio olinpikoko txapelketa den

Ondarroako Triatloian parte

hartuko du.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 2

Oñati, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek Gipuzkoako

txapelketa izango den XXVII.

Olakua proban parte hartuko dute.

Azkoitia, 16:30etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

infantilek Azkoitiako sarian parte

hartuko dute.

Igandea 3

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

irteera dute Otzartera.

Goizueta, 10:00etan

Herriko hainbat txirrindularik BTT-

ko III. Iskibi zeharkaldian parte

hartuko du.

Eibar, 10:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko jubenilek San Juaneko

LXXVII. Sari Nagusian parte

hartuko dute.

## ERRUGBYA

Ostirala 1

Michelin, 19:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby

eskolako maila guztietako

gazteetxoek entrenamendua dute.

Igandea 3

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby

eskolako gazteek gurasoen aurkako

partida jokatuko dute kurto

amaierako ekintza bezala. Ondoren

hirugarren denbora izango da.

Gurasoen parte hartzea eskertzen da.

## ESKOLA KIROLA

Larunbata 2

Kirol gunean, goiza osoa

Eskola Kirola ekimeneko jaialdi

handia izango da.

## Agenda

Larunbata 2, Manuel Lekuona kultur-etxean, 19:30ean



### Zinea, musika eta dantza batuz

Kukuka dantza eta antzerki eskolako dantza ikasleek Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez eta Mikel Ugarte txalapatariekin eszena tokia partekatzeko aukera izango dute, X. urteurrenaren ekintzen barruan. Nomadak TX pelikula ikusi, txalapatariak zuzenean entzun eta Kukuka eskolako dantzariak zuzenean ikusteko aukera izango da. Sarrerak lehiatilan 3, 20 euro, internetetik 3 euro.

## Lasarte-Oria

### Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 1, 23:45ean

Metalmania eta Bergarako Dark Code taldeen kontzertua. Metalmania-k Metallica taldeari gorazarre egiten dion Estatuko talderik hobereena da, haien abestiak jotzen dituzte. Sarrera 10 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 2, 23:30ean

Trifulca Posse DJ hirukoteak (Zigor Lanpre, DZ, Iñaki Bocos, SYR eta Dj Pata) hip hop eta musika beltzako saioa eragingo du.

AMA BRIGIDATARREN KOMENTUA

Ostirala 8, 19:30ean

Donostiako Francisco Escudero kontsebatorioiko kantuko ikasleen kontzertua, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen VII musika Topaketen barruan.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekainean zehar

"Garunak Lantzen Unibertsoan" marrazki erakusketa ikusgai izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ekainaren 8a arte, 18:00etatik 21:00etara

Lasarte-Oriako danborradako 1947tik gaur egunera arteko argazki erakusketa.

## Zabaletako jaia

Ostirala 1

18:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako gaztetxoaren antzerkia.

18:30ean, Porrotx eta batukada.

19:00etan, "Teresa sorgina"-ren jai-siera auzoko trikitilariekin.

19:30ean, Inguruxto herrikoia.

22:00etan, "Altxorraren bila" filma.

23:00etan, Kukuka-ren dantza garaikide emanaldia.

24:00etan, Erromeria.

23:00etan, Bertsolariak:

Ane Labaka

Unai Muñoa

Andoni Otamendi

Amaita Agirre

Patxi Etxeberria

24:00etan, Gazte Rock gaua.

Igandea 3

09:00etan, Diana eta auzo garbiketa txapelketa.

11:00etan, Kukuka-ren euskal dantza saioa.

12:45ean, Herri kirolak: Aimar Irigoien harri-jasotzailea.

13:15ean, Proba mista nagusia.

14:30ean, Herri bazkaria.

17:00etan, EGAN taldea.

20:30ean, Teresa sorginaren agurra eta azken traka.

Larunbata 2

09:00etan, Diana.

11:30ean, Joxe Migel Aranzadi oroi-menez V. Eskoba txapelketa.

15:30ean, Joxe Migel Aranzadi oroi-menez V. mus txapelketa.

17:00etan, Toka txapelketa.

17:00etan, Ur jolasak eta herri kirolak haurrentzat.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Aste honetan zehar

Saharako errefuxiatuak bizi diren Tindouf-eko kanpamentuetako argazkiak ikusgai.

### Bestelakoa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 1, 19:00etan

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa berria eraikitzeke dituen proiektu eta lehentasunak azalduko ditu.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 5, 19:00etan

Andre Joakina-Enea Haurreskolako guraso elkarte eratzeko batzarra izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 5, 19:00etan

Lasarte-Oriarekin lotura duen Dorleta Urretabizkaia aktore eta antzerki zuzendari laguntzailearen klase irekia, Kukuka antzerki eta dantza eskolaren X. urteurrena dela eta.

## Herritarren txokoa

**Santa Teresa ikastetxeko jaialdia**

Laister kurtso bukaera dator, eta eskoletako haurren udako oporrak hasten dira.

Hori dela eta, Santa Teresa ikastetxeak, kurtso amaierako jaialdia ospatuko du bihar.

Goizeko 10:00etan antzara-jokoa-ekin hasiko dira. Gero krossa, puzgariak, "cars" eta zezen mekanikoaren jarraituko dute.

Entziero eta buruhandiak ere izango dira bertan eta jaialdia "aparfesta"-rekin bukatuko dute.

Egun zoragarri bat igarotzea espero dute eta herritar guztiak gonidatzen dituzte.

**Sorgin dantzako entseguak**

Sorgin dantzarako entseguak ekainaren 7an hasiko dira. Astearte eta ostegunetan egingo dira entsegu irekiak eta hauetan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.

Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egitekotan, entseguak Landaberri BHI-n egingo dira eta eguraldi txarreko egunetan, Landaberri-Garaikoetxea eraikiner pasako dira saioak.

**San Juan bezperako soka-dantzarako entseguak**

Astelehenean San Juan Suan Sokadantzan aritzeko entsegu irekiak hasi ziren. Astelehenero, hau da, ekainak 4, 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Hauetan nahi duten herritar guztiak har dezakete parte.

**Iradokizunak Udalari**

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

**Hirigintza saila Ganbo kalean**

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

## Hemeroteka

### Duela 1018 ale



1994. urtean lan merkatuaren erreforma egin zen. Honen bitartez, lan merkatuak sarrera, baldintzak eta kaleratzeak aldatu eta arautu egin ziren. Gobernuak deficit publikoaren murrizketarekin batera, neurri hauek beharrezkoak zirela adierazi zuen, "behin eta berriro Estatu Espainiarrak jasaten duen kritik atera ahal izateko". Neurri hauen bitartez, lantoki berriak sortu, kontratazio enpresak legalizatu eta kualifikaziorik gabeko gazte askoren lan kontratua erraztuko zuen Gobernuak. Esate baterako, sortutako ikasketa kontratuarekin Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako goi titulurik ez zuten 16 eta 23 urte bitarteko gazteak kontratatu ahal ziren.

Sindikatuak, gazte taldeak eta ikasleak erreformaren aurka altxatu ziren. Hauen ustez, kontratu mota hauek gazteak lan esku merke bihurtzeaz gain, behin-behinekotasuna nagusitu eta gero eta kualifikazio gutxiko langileak sortuko zituen. Gainera, langileak peoi hutsak izango zirela salatu zuten, besteak beste, kaleratze merkea ahalbideratzen zuelako.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

# Gaztetxoak bertsoetan trebe

- ▶ “Gu ere Bertsoetan” egitasmoaren baitan herriko eskoletako haurrek bertso larritza lantzen dute
- ▶ Manuel Lekuonan 200 ikasle inguruk parte hartu zuten ikasturte amaierako bertso saioan

Bertso saio dibertigarria eskaini zuten herriko bi ikastetxeetako haurrek Manuel Lekuona kultur etxean. Ikasturtean zehar Unai Muñoa bertsolariarekin “Gu ere Bertsoetan” egitasmoaren baitan ikasitakoa erakutsi zieten irakasle, guraso eta lagunei. Bi saio egin ziren lehenean 4. eta 5. mailakoak aritu ziren eta ondoren, 6. mailakoek hartu zuten oholta. Tartean, ikasle guztiak txirularekin lagundutako bertsoa abestu zuten ikusleen laguntzarekin batera.

Maidar AZURMENDI

Mozorrotuta eta pertsonaia ezberdinak antzetzuz taularatu ziren herriko eskoletako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak. Dagoeneko zortzi urte dira ikasgai bezala ahozotasuna lantzen dutela Unai Muñoa herriko bertsolariarekin eta hain juxtu bertsolaritza duten trebetasuna erakutsi zuten oholta gainean asteazkenean.

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberi ikastetxeetan zortzi ikasturte dira Unai Muñoa bertsolariarekin haurrek bertsolaritza ikasten dutela.

Urtero ikasturteari amaiera emateko bertso festa antolatzen dute Manuel Lekuona kultur etxean eta bertan bilzen dituzte, irakasle, guraso eta lagunak.

## Umorea protagonista

Asteazkenean ohi bezala umorea nagusitu zen gazte txoen ahotan. Puntako gaiak izan ziren euren bertsoetan protagonistak, besteak beste erregea eta elefantearen ehiza famatua, Mourinho, Frank de la jungla, Lady Gaga, Belen Esteban, piratak... “

Hi bertsolari” saiotxo bat ere asmatu zuten, “Tu si que vales” hobetu bat epaimahai eta guzti. New York-etik iritsitako bertso-raperoak ere izan ziren eta hauetaz gain, irakasle inguruan ikaskideez edota gurasoez aritu ziren beste batzutan.

Aipatzekoa da ikasleek euren pertsonaietan sartzeko erabilitako moztarok bikainak izan zirela eta maisuki moldatu zirela peluka, takoi eta guzti bertsoetan fin aritzeko. Ikusleen artean txalo zaparrada luzeak eta irribarreak nagusitu ziren bi saioetan gazte txoen lan ona sarituz.

## Elkarlana

Unai Muñoa “Gu ere Bertsoetan” egitasmoaren arduradunak adierazi zuenez oso pozik daude ekimenak urte hauetan izan duen bilakaerarekin eta azpimarratu ditu ikasgai honekin ikasleek lantzen dituzten gaitasunak “besteari entzuten, arrazoiak antolatzen, jenduraren kantatzen eta kokatzen...” guzti hori izan zen asteazkenean ikusi ahal izan zena, “urte gutxian astero astero geletan egiten den lana”.

Unai Muñoaren ustez meritu handia dute oholtzan kantatu zuten neska mutilek eta horregatik hauentzako txaloak eskatu zituen

Gainera herriko bi eskoletako ikasleek bertso bat prestatu eta taularatu zuten elkarrekin. Batzuk txirula jo zuten eta besteek abestu, honetarako ikusleen laguntza izan zuten. Aurrez aretoan sartzetarakoan banatu zuten bertsoa.

Muñoak garrantzitsutzat jo zuen bi eskoletako haurren arteko elkarlan hau bertsoak aitzaki gauzatu izana. Ikasleak gustura azaldu ziren egindako lanarekin.



Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko ikasleek elkarrekin abestu zuten jaialdirako prestatutako bertsoa.



Apaizak, Belen Esteban... ikasle guztiak moztarotuta azaldu ziren bertso saio berezi honetara.



Frank de la Jungla, piratak eta Mou pertsonaiak tartean Sasoetakoak agur bertsoa abesten.



ikasi euskara  
eman izena aek-n  
Azerketa zifzioak eta fitak, hamabostak  
www.aek.org

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzula

munntteri  
euskaltzgia aek

- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org  
www.munntteri.blogspot.com.es